

Elkarrekin zorigaiztoen aurrean



ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Bi herrialdeen arteko istorioak erakusten duelako elkarlana ezinbestekoa dela elkarbizitzarako. Desadostasunak alde batera utzi eta barkatzearen garrantzia azpimarratzen duelako. Eta horrez gain, Alexandrok eta Paulovak erakusten digutelako neba-arreben arteko maitasunak edozein gaizki-ultertu gainditu dezakeela, eta sendotu ere egin daitekeela harreman hori, gaixotasunaren aurrean.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

K herrialdeko erregeak, Alexandrok, bere herrialdea zaharkituta dagoela pentsatzen du. Horregatik, T herrialdera bidaiatzea erabakiko du, han aurrerapen gehiago baitituzte. Alexandroren arreba, Paulova, nebarekin batera joango da asmakuntza berrien erosketa negoziatzera. Hainbat erakustaldiren ondoren, barne-lesioak hautematen dituen esfera magiko bat eramango dute beren herrialdera. Raimundok hobetutako esfera probatzen dutenean, Alexandrok bihotzeko arazo larri bat duela ohartuko dira. Gatazkak alde batera utziz, bi herrialdeak elkartu egingo dira erregea sendatzeko helburuarekin.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Asmakuntzak gustuko dituzten irakurleentzat. Baita irakurritz gozatzen dutenentzat ere, erraz jarraitzen den istorio entretenigarria baita.

JARDUERA-PROPOSAMENA



BIKOTEAK

Eskatu zure ikasleei **pentsatzeko**, binaka, zer gertatuko zen **Paulovak apustua galdu izan balu**. Gogorarazi ikasleei zer zegoen jokoan, eta egin galderak: *Nola erreakzionatuko zuten Alexandro K eta Raimundo T erregeek? Nola sentituko zen Paulova? Nola jarraituko zuen liburuak?*



TALDEA

Banatu zure ikasleak talde txikitan eta sortu **eztabaida**, **galderak** eginez: *Paulova izango bazina, nola jokatu zuen? Zuen ustez, nobelaren amaiera gertatu al daiteke bizitza errealean? Zuen iritziz, zer transmititu nahi du egileak istorio honen bidez? Jarduera amaitzeko, aztertu erantzun guztien antzekotasunak eta ezberdintasunak, eta egin bateratze-lana.*



NATURAREN ZIENTZIAK

Asmakuntzek lan honetan garrantzi berezia dutela aprobetxatuz, proposatu zure ikasleei gure historiako **asmakuntza** garrantzitsuenetako bati buruzko **ikerketak** egiteko (*penizilina, X izpiak, lurrun-makina, elektrizitatea, internet...*). Horma-irudi bat egin dezakezue, datu hauekin: asmatzailea, garai hartako gizarte-testuingurua, kultura, zer eragin izan zuen asmakuntzak, edo interesgarria iruditzen zaizuen beste alderdiren bat.

IDAZKETA-TAILERRA

Proposatu zure ikasleei liburuaren argumentuarekin **bat datorren beste amaiera bat** idazteko. Egon dadila elkarriketa bat bi pertsonaiaren edo gehiagoren artean. Gogorarazi **marratxoak** (—) erabili behar dutela parte-hartze bakoitzean.

